



**2022KO ABENDURAREN 12KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko abenduaren hamabian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko azaroaren 21ean egindako ohiko bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 67 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA HAMA ZAZPI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI euro ETA BERROGEITA HIRU zentimo (57.676,43 €)takoa onartzea erabaki da. Honez gain, U.E. 19.1 Larreategiko itzuntze-batzarrak igorritako 2022/07 zenbakidun faktura ere onartu da, HAMA ZAZPI MILA EHUN ETA HAMAR euro ETA BERROGEITA BI zentimo (17.110,42 €)takoa.

III.- LAZKAOKO HARIZTI HANDI FUTBOL ZELAIAREN ARGIZTAPEN ARTIFIZIALEKO INSTALAZIOA EGUNERATZEKO OBRAREN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Lazkaoko Harizti Handi futbol-zelaiaren argiztapen artifizialeko instalazioa eguneratzeko obraren obra zuzendaritza daraman Izaskun Larzabal arkitektoak, Ezketa S.L.P. enpresakoak, lanen lehen obra egiaztagiria egin du. Lehen obra egiaztagiria honen zenbatekoa LAUROGEITA HAMAR MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI euro ETA LAUROGEITA HAMASEI zentimo (90.698,96 €) gehi B.E.Z.ri dagokion HEMERETZI MILA ETA BERROGEITA SEI euro ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI zentimo (19.046,78 €) da, guztira EHUN ETA BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA BOST euro ETA HIRUROGEITA HAMALAU zentimo (109.745,74 €).

Obra ziurtagiri honek udal teknikariaren oniritzia du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, lehen obra egiaztagiri hau aho batez onartu du.

IV.- INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOEN MANTENTZE ETA KONPONKETA ZERBITZUEN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA EGITEA.-

Zerbitzu honen azken kontratua 2022ko azaroaren 16an amaitu zela eta, instalazio elektrikoen mantentze-zerbitzua berriro ere lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea prestatu da.

Kontratu honen urteko lizitazio prezioa, BEZ barne, 102.850 € da.

Kontratua bi urterako izango da eta urte beteko bi luzapen egin ahal izango dira.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) administrazio-klausulen pleguetan bi akats daukela adierazi du eta hauen zuzenketa egitea proposatu du.

Gaiaz eztabaidatu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez honako akordioak hartu ditu:

1.- Instalazio elektrikoen mantentze-zerbitzuaren kontratazio espedienteak, bere espedienteetan dagoena, onartzea.

2.- Zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko lizitazio deialdia egitea.

V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 2022ko abenduaren 31 arte indarrean dauden ondorengo laguntzak 2023ko apirila arte luzatzea:

ESPEDIENTE ZBK	KONTZEPTUA	DIRULAGUNTZA URTARRILA-APIRILA
103	Mantenimendua	370 €
135	Mantenimendua	370 €
670	Mantenimendua	370 €
09-01-007	Mantenimendua	333 €
13-01-11	Mantenimendua	370 €
14-01-005	Mantenimendua	370 €
16-01-005	Mantenimendua	370 €
18-01-004	Mantenimendua	366,32 €
19-01-009	Mantenimendua	370 €
16-01-008	Mantenimendua	222 €
18-01-003	Mantenimendua	370 €
21-01-010	Alokairua	1.000 €
	Mantenimendua	370 €





22-01-001	Mantenimendua	325,6 €
22-01-005	Mantenimendua	351,52 €
22-01-007	Mantenimendua	358,92 €
22-01-009	Mantenimendua	370 €
22-01-010	Alokairua	1.000 €
	Mantenimendua	370 €
22-01-011	Alokairua	630 €
	Mantenimendua	233,12 €
22-01-012	Alokairua	500 €
	Mantenimendua	185 €
22-01-014	Alokairua	1.000 €
	Mantenimendua	370 €
22-01-015	Alokairua	1.000 €
	Mantenimendua	370 €
22-01-016	Mantenimendua	148 €
22-01-017	Alokairua	1.000 €
	Mantenimendua	370 €

- 21-01-004 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntza bajaran ematea urritik, diru sarreretan aldaketak egon direlako.
- 21-01-011 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntza eta alokairurako laguntza bajaran ematea ekainetik, diru sarreretan aldaketak egon direlako.

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 22-11-10 zk.dun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea, azaroaren 28tik aurrera, astelehenetik larunbatera egunero ordu bete, laguntza pertsonalerako. Onuradunak %100eko ekarpena egingo du.

Esku-hartze Proposamena.-

- 22-15-01 zk.dun esped.: hasierako ikerketa eta ebaluazio txostena egitea. Ikerketa eta ebaluazio txostena egitearen aurrekontua 900 €koa da.

Menpekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen estimulazio/errehabilitaziorako laguntzak.-

- 22-20-01 zk.dun esped.: 2021 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 497,25 €ko diru laguntza ematea.
- 22-20-02 zk.dun esped.: 2021 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 617,60 €ko diru laguntza ematea.
- 22-20-03 zk.dun esped.: 2021 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 312,00 €ko diru laguntza ematea.

- 22-20-04 zk.dun esped.: 2021 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 882,00 €ko diru laguntza ematea.
- 22-20-05 zk.dun esped.: 2021 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 1.000,00 €ko diru laguntza ematea.

Entitateei dirulaguntza.-

2022. urteko dirulaguntzak entitateei honela ematea:

- Gizakia Helburu: 1.100 €
- Azki, Emakumeen Taldea: 1.000 €
- Lazkaoko Karitas: 2.000 €
- Lazkaoko Talde Feminista: 1.000 €
- Lazkaoko Odol Emaileak: 991,50 €

Orobione jubilatuta eta pentsiodun elkarteari dirulaguntza.-

Orobione jubilatuta eta pentsiodunen elkarteari 2022. urterako 7.564,39 €ko diru laguntza ematea, egin dituzten ekintza eta oinarritzko egituraren funtzionamendurako.

VI.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Euskara ikasten ari direnei.-

2022/2023 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Bi ikasle dira eta emango zaiena 608 € dira.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2022ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

Gidabaimena euskara hutsean ateratzeagatiko dirulaguntza.-

2022. urtean autoa edo motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntzak ematea. Ikasle bakarra izan da, bere espedientearen dauden datuen arabera, eta guztira 100 € emango dira.

VII.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura batzordearen proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru laguntza hauek onartu ditu:

Jundajo txaranga taldeari.-

Talde hau eta udalaren artean izenpetu den hitzarmenean talde honentzako, egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, aurreikusitako zen 3.000 €ko dirulaguntzaren %40, hau da, 1.200 € ematea.

Diru laguntza 2022ko aurrekontuaren 481.01.334.00 partidatik ordainduko da.





LAZKAOKO UDALA

VIII.- LAZKAOKO MUSIKA BANDARI BIKOIZTUTA EMANDAKO DIRULAGUNTZAREN ZUZENKETA.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazten zaio akats bat dela medio, Lazkaoko Musika Bandari birritan ordaindu zaiola zegokion dirulaguntzaren bigarren zatia, 1.200 €koa. Lazkaoko Musika Bandak berak transferentzia bitartez itzuli du 1.200 €ko kopurua.

IX.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko urrian martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bosgarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	3.575 €
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	45 €
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	35 €
JAVIER GUTIERREZ (UNARO)	15 €
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	85 €
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	5 €
RAQUEL GARCIA MENDOZA (PRANAQI)	125 €
GERRIKO SL	115 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	315 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	125 €
FONTANERIA JESUS GOMEZ SL	270 €
AINHOA OLARAN (FISIO ZENTRUA)	40 €
JAUREGI ELEKTRIZITATEA	995 €
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	435 €
ANA CRISTINA OLANO (ESTETIKA ZEN)	715 €
ANA CRISTINA OLANO (ESTETIKA ZEN)	265 €
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	490 €
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	25 €
ALAITZ ZUBIZARRETA OTEGI (MAGALA)	285 €
OLATZ RISCO URSUA (PARAFARMAZIA)	60 €
AGURTZANE DE MIGUEL.. (KOKKOR)	10 €
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	420 €
JOSE ANTONIO INSAUSTI (ESTANKOA)	2.180 €
IGONE ARAMENDI AMENABAR (XANU)	1.265 €
Mª CARMEN AGUADO (AGUADO ESTANKOA)	670 €
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	575 €

ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	335 €
AINHOA GURRUTXAGA (ILEAP.)	285 €
MARIANA OSTERGAG (MAMUFO)	10 €
RAKEL OIARBIDE (EIRE ILEAP.)	215 €
ERROTAUNDI SL	185 €
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	995 €
DAMASO LOPEZ (PELUQUERIA DAMA)	135 €
IDOIA MATXINANDIARENA (A.BELEN)	935 €
MILA MARTINEZ (DIGITAL IZAR)	40 €
PEDRO PEREIRO FARMAZIA	525 €
M ^a ISABEL MURUA (ANDERE LURRIN)	85 €
URTEAGA PENTXUAK SL	815 €
KEMEN	65 €
ANGEL CIEREZ (ZERIK ILEAPAINDEGIA)	215 €
J. MANUEL MATIAS (FRUTADENDA)	2.135 €
MIGUEL MARI ARAKAMA (HARATEGIA)	1.070 €
BELEN ARANES FARMAZIA	55 €
PELLO BIDEGAIN (HARATEGIA)	310 €
ARTANO ETA LORENA SL	610 €
GUZTIRA	22.160 €

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

Merkatariei 2022ko irekiera eta obregatik.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2021erako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa) jasotako honako eskaeraren ondorengo dirulaguntzaren ordainketa egitea:


MERKATARIA	GUZTIRA
Pedro Cano Paredes (Ogiberri)	166,83
Idoia Noain Otegui y Otra CB (360 Faktoria)	80,00
GUZTIRA	246,83

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.03.430.00 partidatik egingo da.

X.- LANDALURREKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lurreko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei bederatzigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:



Baserritarra	Zenbatekoa
AITOR IZTUETA BARANDIARAN	40 €
AITOR IZTUETA BARANDIARAN	175 €
IKER SUKIA MESAS	705 €
GUZTIRA	920 €

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

XI.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

Ikullu Razing Eskuderiari, 2022ko uztailaren 1ean eta 2an antolatu zuen IV. Goilurak rallya dela eta, 3.000 €ko dirulaguntza ematea onartu da.

Ordainketa 1 481.01.341.00 partidatik egingo da.

XII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik edota erregurik izan.

XIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO
UDALA